

# ABONATUAK

## SARRERA

Zenbat abonatu dauzka Real Sociedad de Fútbol, S.A.D.-k eta zein izan da euren bilakaera? Eta asistentziarena? Bere lehiakideekiko zein postutan dago kluba? Hobe, okerrago ala antzeko baldintzetan?


Fitxa honek galdera hauei erantzuna emateko helburua du, eta era berean Realaren masa soziala hobeto ulertzen laguntzea, gaineko Ligako lehiakideen testuinguruan jarriz.

## ABONATU KOPURUAREN BILAKAERA

Atotxatik Anoetara igarotzeak aldaketa handia ekarri zuen. Zelai berriak 29.000 ikuslerentzako edukiera zuen eta ondorioz abonatu kopurua hazi egin zen.

Hainbeste non 1998an, estadioa inauguratu eta bost urtera, hondoetan 3.000 eserleku berri sortu ziren. Eserleku hauen eskuragarritasuna aste gutxitan amaitu zen, eta, orduetik, hondoetan ez dago abonatu berrientzako leku librerik, soilik denboraldi hauetan bazkide izateari utzi diotenen eserlekuak.

## Abonatuak 2010etik



Real Sociedad de Fútbol, S.A.D.-k abonatuena marka 2002-2003 (txapeldunordetza erdietsi zuenean) 27.888 abonaturekin.

Bigarren Mailan abonatu kopurua apenas jaitsi zen 20.000tik, baina erorketa garrantzitsuenak jaitsieraren aurreko urteetan eman zirelako. Lehen Mailara igotzeak abonatu kopurua haztea ekarri zuen, Real Sociedad de Fútbol, S.A.D.-k masa sozialagatik izan behar dituen kopuruetara gerturatuz.


Lehen Mailan berriro ere hazita (2013-14 denboraldian 26.270 abonatura iritsiz), klubak argitaratu duen azken datuaren arabera Realak 25.019 abonatu ditu.

## GIPUZKOAKO ESKUALDEETAN SARPEN-MAILA

Donostia, Donostialdea eta Oarsoaldeak dituzte probintziako abonatuportzentaia handienak. Bestetik, Bidasoaldean (ia 78.000 biztanle) 81 biztanleko abonatu bakarra du Realak. Oarsoaldean (eskualde altuena Donostia, 13 biztanleko abonatu batekin, alde batera utzita) 24 biztanleko abonatu bat dago.

### Abonatuena ehuneko, eskualdeka


2012-13 denboraldia.



## ASISTENTZIAREN BILAKAERA

Lehen Mailan egondako azken bost denboraldietan asistentzia poliki-poliki gutxitzen joan da. 2010-11 denboraldiko 25.050etatik 2014-15 denboraldiko 22.093etara, hau da, %78,1etik %68,8rako jaitsiera.

### Abonatu-bertaratzeen alderaketa (2010-2015)



# ASISTENTZIAREN ALDERAKETA

Real Sociedad de Fútbol, S.A.D.-n azken bost denboraldietako batz-besteako asistentzia bere zuzeneko lehiakideena baino baxuagoa da.

## Bertaratzeen alderaketa

---

Azken bost denboraldien batzbestekoa lehen mailan.

